

B E U S K A R A R E N B E R R I P A P E R A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA

Hizkuntza Politikarako Sailordetza Kultura Sailean txertatu da .

Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren dekretu batez, Kultura Sailean kokatu da lehen Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia zena, eta, aurrerantzean, Hizkuntza Politikarako Sailordetza (HPS) izango dena. Hona dekretuak ekarri dituen aldaketa nagusienak:

- HPS Kultura Sailean txertatuko da, Lehendakariaren mendean egoteari utziko dio, beraz.
- Jose Mari Zeberio izango da Hizkuntza Politikarako sailburuorde berria eta bere ardurapean hiru zuzendaritza

izango ditu.

1. Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Kultura Sailordetzatik HPSra ekarri da. Josune Ariztondo izango da zuzendaria.

2. Xabier Aizpuruaren ardurapekoa izango den Ikerketa eta Informaziorako Zuzendaritzak kudeatu eta gauzatuko ditu: sailordetzak bultzatutako azterlanak, informazio sistemaren diseinua eta garapena, argitalpenak eta zabalkundea.

3. Jokin Azkuek Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza


izango du bere gain, herri administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza eta normalkuntzarako plangintza izango dira zuzendaritza honen egiteko nagusiak.

- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea, HABE alegia, zuzenean sailburuaren agintepean egongo den arren, HPSrekin batera arituko da lanean. Arduradun nagusia Martin Etxeberria izango da.

Antolaketa berriarekin EAEko hizkuntza politika eta euskararen sustapena-bateratu egingo dira.

Kultura Sailaren organigrama

Euskararekin zerikusia duten zerbitzuak eta erakundeak



Jose M^a Zeberio, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza, Politikarako sailburuordeak, Jose M^a Zeberio, 46, lan esperientzia luzea du euskal administrazioan.

Donostian Ingeniaritza Teknikoa ikasi ostean, ataundar gazteak Ekonomia ikasketak burutu zituen Euskal Herriko Unibertsitatean.

Iturriaga Fundazioan aritu zen lanean eta laborarien sindikatugintzan.

Eusko Kontseilu Orokorrean ere jardun zuen. Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Jose M^a Zeberio Nekazaritza

Sailean aritu zen hamaika urtez, nekazaritzaren industrializazioko eta komertzializazioko gaietan, eta Formazio eta Ikerketa zuzendari gisa. Azken lau urteotan Euskara Gizarteratzeko zuzendari izan da, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusian. Hamahiru urte darama



Jose M^a Zeberio

Gasteizen bizitzen emaztearekin eta hiru alabekin.

Bere ustez, goraipatzekoa da orain artean egindako bidea:

esperientzia urria zen hainbat arlotan - administrazioan, komunikabideetan...- asko aurreratu da eta eskarmentua zegoen beste arlotan lana sendotu. Beraz, abiapuntu ona duela deritzo: "Gaur egun dugun egoera ondo ezagutzen dugu. Hartu behar diren neurriak ere ondo planteatuta daude". Badaki baliabideak urriak direla, baina kultura

Sailaren egitura berriarekin koordinazio handiagoa lortuko delakoan dago. "Herri honek euskararen normalizazioaren aldeko apustua egin du. Horregatik, alferreko liskarretan denbora galdu gabe heldu behar diogu lanari". Horretan dabil buru-belarri.

Hezkuntza elebiduna Iparraldean

Eskola elebidunei buruz Francois Bayrou Hezkuntza ministroak plazaratu duen zirkularrak poza eta kezka sortu ditu Ipar Euskal Herriko eskola elebidunetako arduradunen artean. Poza, ministroak ateratako testuak Iparraldeko sistema eredutzat hartu duelako. Hamar urteren ostean, badirudi ministerioa prest dagoela irakaskuntza elebiduna onartzeko eta babesteko. Kezka, orain artean ere zirkular asko atera direlako hitz politik esanez, baina ezertan gauzatu ez direnak.

Ministroak argitara emandako zirkularrak ontzat ematen du irakaskuntza elebiduna, hezkuntzaren berezitasuna denez gero. Testuak dioenez, aurrerantzean ikasketa plangintzak lurraldeetako kolektibitateekin batera tajutu ahal izango dira.

Aukerarik izanez gero proposatzen dena gauzatzeko, aldaketa franko etorriko da.

"Inkarie" aldizkaria Sartu da NUPen.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) ikasleek eraturako Euskara Taldeak Inkarietaren lehena izeneko aldizkariaren lehena zenbakia plazaratu du. Euskara batuan eta Nafarroako euskalkietan idatzia, unibertsitatea eta kultura ditu gai nagusi. Urtean birritan aterako da, udaberrian eta neguan, eta doan banatuko da.

"Irun Hiria" literatur saria.

Kutxa Fundazioak eta Irungo Udalak Irun Hiria literatur lehiaketarako deialdia zabaldu dute. Sariak hiru sailetan emango dira: nobela, poesia eta entseia, euskaraz zein gaztelaniaz. Lanek orijinalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Azken erabakia datorren azaroan emango da jakitera. Lanak aurkezteko epea uztailearen 29an bukatuko da.

Euskaltzaindiaren arauen bilduma.

Iaz Leioan egin zuen biltzarraz geroztik hartu dituen erabaki guztiak biltzen dituen karpeta aurkeztu du Euskaltzaindiak, Euskaltzaindiaren Arauak izenarekin. Oraingoan 29 erabaki jasotzen ditu, 152 orrialdeetan zehar. Postaz banatzen da harpidedunen artean. Aurtengo harpidetza prezioa 5.000ptakoa da. Harpidetza egin nahi, izanez gero, dei egin (94) 415 8155 telefonora.

XXIII. UEU Baionan eta Iruñean.

Aurten ere, Udako Euskal Unibertsitateak bi saio nagusi izango ditu uztailean. 3tik 7ra bitartean Baionako Institute Universitaire de Technologie delakoan zazpi atal nagusi jorratuko dituen ikastaroa izango da. 17tik 29ra bitartean, ordea, Iruñeko Larraona ikastetxean 27 atal landuko dira, horietatik hiru berriak: grafologia, antropologia eta sexualitatea.

Kirola euskalduntzeko ahaleginak

Azken urteotan kirola euskalduntzeko egiten ari diren ahaleginak hasi dira fruituak ematen.

Euskal Kirol Institutua

Euskal Kirol Institutuak (EKI/IVEF) hiru kirol hiztegi argitaratu ditu: futbolari, atletismoari eta pilotari buruzkoak, hain zuzen. Hirurak UZEIk orain urte batzuk kaleratutako *Kirolkidea eta Futbola* hiztegiengan oinarritzen dira, baina gaurkotuak eta definizioekin osatuak datoz. Sarreraren baliokideak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez agertzen dira.

Euskal Kirol Institutuak 30 kirol hiztegi argitaratzeko asmoa du: 29, kirol espezialitateei eskainiak eta azkena, orokorra. Hiztegi argitaratu berriak bilduma horren lehen hirurak dira. Egitasmo handi hau UZEIrekin batera egingo du. Izan ere, UZEI hiztegi guztien koordinazio lanaz arduratzen baita, ETB, Euskadi Irratia eta EKI/IVEFeko kideen laguntzarekin.

Honekin guztiarekin batera,

Euskal Kirol Institutuak *Europako Kirol Ituna* ere argitaratu du, euskaraz eta gaztelaniaz.

Deba bailara

Kirolari buruzko bi liburu argitaratu dira euskaraz Deba bailarako zenbait udalek aurrera daramaten Kirola euskaraz egitasmoaren barruan.

- *Futbol Entrenatzailea*, Christian Bourrel eta Maurizio Seno idazle frantsesena. Futbolari buruzko ikuspegi zabala eta pedagogikoa eskaintzen du, entrenatzaile eta monitore edozeinentzat erabat interesgarria.

- *Kirol Entrenamenduaren Oinarriak*, Ina Oiartzabalek eta Aitor Zinkunegik idatzi dute. Kirol entrenamenduaren gorabeherak aztertzen ditu. Liburu hauek 1993an eta 1994an sortutako bi bekei esker egin ahal izan dira.

Kirola Euskaraz egitasmoak. Deba bailarako hamahiru udal biltzen ditu. Udal bakoitzak 12 pta ordaintzen ditu biztanle bakoitzeko. 1.600.000ptako aurrekontua du.

Amaia Mendizabal, 37, pedagogo eta irakasle donostiarrak Madrilgo UNEDen aurkezturiko Euskararen Irakaskuntza-ikaskuntzako Faktore Adierazgarriak Eskolaurrean doktorego tesiak cum laude aipamena jaso du. Amaia Lezo-Pasaia lizeoko irakaaslea da.

Begoña Bilbao, 62, filologo bermeotarrak Bermeoko Euskararen Berezitasunak izenpean bost urtetan egindako lan mardula aurkeztu du. Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean eta Bermeoko Udaleko Euskara sustatzailea da.

Iñaki Iturain, 38, euskara teknikariak eta **Loren Loidi, 29**, filologo eta irakasleak, biak oriotarrak, Orioko Euskara liburua idatzi dute. Liburuak Orioko euskararen ezaugarriak jasotzen ditu: lexikoa, esamoldeak, fonetika, etab. Orioko Udalak argitaratu eta salgai jarri du.

Argitalpenak

Haur Literatura Euskaraz

Seve Callejak idatzi, Igone Etxebarriak euskaratu eta Labayru Ikastegiak eta BBK-k argitaratu duten liburu honek haurrentzat euskaraz agertu ziren lehen irakurgaietatik 1986ra arteko guztiak biltzen ditu. Amaieran, euskarazko haur literaturan ezinbesteko izan diren 20 pertsonaia aztertzen ditu. Hiru aurkibide eta ilustrazio ugari dakar.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Wellingtono Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelerez

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:
.....
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka


Kultur Saila eta AEK

G. Nola doaz Kultura Sailaren eta AEKren arteko elkarrizketak?

E. Elkarrizketak ez dira inoiz eten. Egia da oraindik ez garela ados jarri negoziagai diren puntu guztietan, baina beti egon da bi aldeetatik borondate garbia akordio orokorrera iristeko.

Ados jarri gara euskaltegien mapan, subentzionatuko diren ordu kopuruan, irakasleen titulazioaren homologazioan eta Gizarte Segurantzaren ordaintzeko eguneratze prozesuan.

Desadostasunak ditugu aintzinasunaren aitormenari eta 1995eko dirulaguntza zehazteari dagokienean. Dena den, desadostasunik handiena AEK-ko euskaltegien autonomian dago. Kultura Sailak uste du AEK-k gutxieneko nortasuna aitortu behar diela beren euskaltegiei eta hori aurrerapauso garrantzitsua litzatekeela helduen euskalduntze-alfabetatzearen arloa normalduz joateko.



Jose M. Zeberio
Hizkuntza Politikarako
idazkari nagusia.

Administrazioan euskara gehiago

Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, HABEk eta HAEE/IVAPEk beste pauso bat eman dute euskal administrazioan euskararen erabilera areagotzeko bidean: esperientzia piloto bana jarri dute abian Antzuolako eta Bergarako udaletan.

Aipatutako hiru erakundeek 1993tik aurrera egindako bileren ondorioz, AEBE (Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz) egitasmoa sortu zen. Bere helbururik nagusia euskal administrazioan euskararen erabilera areagotzea da. Bilera horiei esker, aurretiaz bai administrazioan nola lan munduan izandako esperientziak aztertu eta erabilera areagotzeko egitasmoen metodologia zehaztea lortu zen. Metodologia praktikan jartzeko bi froga piloto antolatzea erabaki zen: bat Antzuolan eta bestea Bergaran.

Herri biak Deba Garaian daude, euskaldunak biztanleriaren %60 diren eskualdean hain zuzen. Biek dute euskara zerbitzua eta hizkuntza eskakizunen plangintza ia bere osoan bete. Antzuola herri txikien eredu (2.000 biztanle inguru) izan liteke; Bergara, berriz, (15.000 biztanle) herri ertainena.

Froga pilotoari ekiteko, udal bien hizkuntza egoeraren diagnostikoa egin zen, ondoren datu bilketa zehatzagoa eta, azkenik, hiru urterako lan proposamena aurkeztu langileek zein agintariek adostasunez onar zezaten. Dena euskara teknikariek elkarlanean egin da. Antzuolako Udalean (11 langile) proposamenak onartu, lan taldeak sortu eta hainbat bilera egin dira. Bergarakoan (110 langile), aldiz, proposamenak onartze bidean dira.

✓ Kontutan hartzeko

• **Josune Ariztondo Boliviara.** Euskara Sustatzeko zuzendaria dena, Boliviara joango da uztailean hango gobernuak gonbidaturik. Bidaiaren helburua Boliviako irakaskuntza sistema eta egoera ezagutzea da, ondoren laguntza eta aholkua eman ahal izateko. Izan ere, Boliviako Gobernuak orain arteko gaztelaniazko irakaskuntza elebakarra utzi eta irakaskuntza elebiduna ezarri

nahi du. Boliviako biztanleriaren %70 elebiduna da. Gaztelaniaz gain, quechuera, aimara eta guarani hizkuntzak ere hitz egiten dira Bolivian.

• **XI. Basarri Saria.** Zarautzeko Udalak erata, bertsopaper sariketa honek bi sari eskaintzen ditu: 150.000 eta 100.000ptakoak. Epea uztailean 20an bukatuko da.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

